

Izan eta ez izan

Bai Katixa, Sarah Palin bel-
durgarria da. Ez noski bere
andereño *bondage* itxura
horregatik soilik. Bai ordea
betiko mentalitate inkisi-
tzailearen apaindurak direlako
bere ezpain koloretuak, takoi
finak eta irribarre kokina. Apain-
dura diot eta ez mozorroa. Izan
ere, Palinen figurari dariona ero-
tismo kontraesankor gisa defini-
liteke, baina ez da hori, erotis-
moa, hala eta guztiz ere, bere
ideia atzerakoiak estaltzeko
mozorroa da –ez al da kontraesan bat ezkon-
tza aurreko sexu harremanen aurka aritzea
zure gorputz hizkerak aurkakoa garrasi egiten
duenean edota zure 17 urteko alaba ezkong-
bea haurdu agertzen delarik ezustean?–.

Aitzitik. Palinek (Bushek eta Aznarrek
egiten zuten moduan) bere ideiak *ahosgora*
adierazten ditu, itzuli-mitzulirik gabe, behia-
lako eskuin zaharraren diskrezio edo kon-
tzentzia txarrik gabe. Palinen itxura erakar-
garria, bere erotismoa –hitzaren zentzurik
zabalenean–, inposatu nahi dizkigun ideiak
gustagarri bihurtzeko enbalajea da. Estrate-
gia barrokoaren alde apustu egin du staff
errepublikarrak Palin aukeratuz. Elizak ere
antzeko estrategia erabili zuen XVI. mende-
tik aurrera protestantismo austeroak “desbi-
deraturiko” ardiak berreskuratzeko nahiz
kolonia urrunetako indigenak ebanjelizatze-
ko. Hots, urrez josi zituen elizetako erretau-
lak eta garai hartako “pop” musikaz ferekatu
(matrakatu?) zituen sinesdunen belarriak
mezaren *sharea* handitzeko. Garbi dago
McCain jaunak ez daukala soinean glamour
lagin bakar bat ere eta hori litzateke Palin
bezalako lehendakariordegaia
aukeratu izanaren arrazoi
nagusia. Gauza jakina da euliak
ez direla ozpinaz erakartzen.

Ez dut esango –gezurra bai-
litzateke– Obama ez dela glam-
ourraz baliatu kanpainan
zehir –ikusi besterik ez dago
Hollywoodeko izarrak eta
azken hauen dirua nola erabili
dituen–, baina Palinen parean
esan daiteke hautagai demokra-



ta deszifratu beharra dagoela.
Hautagai kriptikoa baita berau.
Kripto musulmana alde batetik
–gogoratu bere lapsus zoraga-
rria elkarriketa batean: “Nire
fede musulmana... ejem, barka-
tu, nire fede kristaua”–, kripto
beltza bestetik –zergatik mozt-
en du ilea ezin laburrago ez
bada kizkur afro salatarien ager-
pena galarazteko?–. Guztiz
zuzena izateko aitortu behar

dut Obamari benetako glamourra ematen
diona bere maila intelektual eta humano
dela. Tipo argia da, ageri da, eta bestalde beti
gogoratuko da bere beltz nortasunaz egin
zuen diskurtsoa. Begietara begiratu azumitu
zituen orduan militante beltz erradikalagoe-
kin izan zituen harremanak, esaterako.

Esango didazue: ez al diozu Palin anderea-
ri horixe bera leporatu oraintxe bertan, bere
ideiak ahosgora eta lotsarik gabe azaldu
izana? Bai, hala da. Baina diferentzia handi
eta funtsezkoa dago bien artean: Palinen
ideiak gehiengo zuri dominatzailearenak dira
eta Obamaren soslaia eta iragan politikoa
gutxiengo persekutatu batena. Oldearekin
oihu egitea ez da ausardia, larderia baizik.
Gutxiengoaren ahotsa entzunazteari berriz,
benetako ausardia deritzo. Inork ez du Palin
kartzelaratu edo auziperatu bere ideia
horiek defendatzeagatik.

Obamaren ausardiaren neurria hartzeko
ez dago oso urrutira joan beharrik. Ondo
dakigu hemen ere zein ideia ahal diren ahos-
gora esan eta zeintzuk eramaten zaituzten
itzalera (barkatu Katixa eta Juanjo, ez zen
nire asmoa gure ttakun light-ei dizdira post-
moderno kentzea...).

Berriki Argentinako
La Plata hiriko kafetegi batean
tarta zati bana eskaini zigan
zerbitzariak zera esanez: “Para
mis amigos españoles”. Guta-
ko inori ez zitzaion okurritu
une hartan azalpenak ematen
hastea ala nabarduren beharra
aldarrikatzea. Egia da tartak
izugarritzko itxura zuela...

Horregatik bakarrik bada
ere, Obamak errespetua
merezi du. ■

Palinen ideiak gehiengo zuri dominatzailearenak
dira eta Obamaren soslaia eta iragan politikoa
gutxiengo persekutatu batena. Oldearekin oihu
egitea ez da ausardia, larderia baizik